



SANTIXABELAK
2025

gehiganvi berezia



Bidaiatu Konpainia onean.



Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aiizpurua.es



Ondo pasa
Santixabeletan!!



ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com www.alkartasuna.eus

“BURUHANDIEK GARRANTZI HANDIA DUTE FESTETAN”

Arte Ederrak gradua bukatu berri du Unai Lopezek eta herriko egitarau lehiaketa ikusi zuenean parte hartzea erabaki zuen. Irabazteak, bere alderdi artistikoa “bultzatzeko” aukera eman dio.

Nondik hartu zenuen egitaraurako ideia?

Unai Lopez: Beti kostatzen zait asko ideiak ateratzea, eta uste dut artista ororen zailtasuna dela. Interneten begira egon nintzen beste jai batzuetako egitarauak, eta horrela bururatu zitzaidan buruhandiak erabiltzea. Usurbilgo festetan garrantzia handia dute eta umeei asko gustatzen zaizkie. Orduan, buruhandien argazkiak hartu nituen eta argazkiekin jolasten hasi nintzen. Ez nuen errealismoa bilatzen eta koloreekin jolastu nahi nuen, kolore planoekin.

Zergatik erabaki zenuen parte hartzea?

Arte Ederren gradua amaitu berri, konkurtsoen eta antzekoen bila nengibela egitarau lehiaketa hau topatu nuen interneten. Usurbilgoa naizenez, parte hartzea erabaki nuen.

Zer sentitzen da egitarau lehiaketa irabaztean?

Ez nuen espero egia esan. Etxean nengoen ordenagailuarekin eta dei bat iritsi zitzaidan esanez egitarau lehiaketako txapelduna nintzela. Poztasuna sentitu nuen.

Arte Ederrak ikasi dituzu, uste duzu sariak zure ibilbideari bultzada bat emango diola?

Azken batean gauza artistiko bat da, eta berdin dit egitarau bat edo



“Interneten lehiaketen bila nengibela eta Usurbilgo diseinu lehiaketa topatu nuen”.

UNAI LOPEZ

“Ez nuen errealismoa bilatzen eta koloreekin jolastu nahi nuen, kolore planoekin”

koadroa egitea izan bada. Azken finean neure alde artistiko hori pixka bat bultzatzeko balio dit, eta gehiago praktikatzeko balio izan dit. Nire alderdi artistiko hori gehiago bultzatzea da.

Usurbildarren erreakzioak kezkatzen zaitu?

Pixka bat. Umea nintzenean jaietan antolatzen ziren marrazki lehiaketetan, eta irabazi izan dut. Baina egitarau lehiaketan parte hartzea beste pauso bat da, eta erreparatu pixka bat ematen dit.

Tabletarekin lan egiten duzu. Aldaketa nabaritzen duzu es-

kuz edo ordenagailuarekin lan egiten duzunean?

Azken batean errazagoa da tabletan lan egitea. Azken finean ‘collage’ bat da. Horretarako, argazkiak tabletara pasa eta tabletako moztu eta ebaki funtzioak erabiliz jartzen dituzu, gainera margotzen duzu... Errazagoa da.

Zein programarekin egiten duzu lan?

Jende askok ordenagailuan eta tableta grafikoa Photoshop, ilustrator eta antzekoak erabiltzen ditu, baina nik Procreate erabiltzen dut. Hasieran ordaindu egin behar da, baina gero doan da eta aukera guztiak dituzu.

Jendea animatuko zenuke lehiaketan parte hartzera?

Bai. Azken finean jendea margotzerara, eta gauzak probatzera bultzatuko nuke ez duzulako ezer galtzen.



Diseinu lehiaketa lan honi esker irabazi du.

JAIEN HASIERA, HERRIGINTZAREN ERAKUSLEIHO

Berrogei urteak paraleloki ospatzen aritu diren arren, urtemuga berezi bikoitz hau elkarrekin borobilduko dute Usurbilgo jaietan. Misio bikoitza izango dute, gainera; festei hasiera ematea eta soka-dantzan aritzea.

Izan ere, 40. urtemuga ez da egunero betetzen. Aparteko ahalegina egin dute azken hilabeteotan baina merezitako aitortza jasotzeko unea heldu zaie Zumarte Musika Eskolari eta Ziortza Gazte Elkarteari. Sagardo Egunean izan zuten bezala, uztailaren 1ean 19:00etan udaletxe atarian Santixabelak has-teko ohorea haiena izango da.

“Ohore eta aitortza handia”

“Ez genuen espero”, harriduraz jaso dute Ziortzan festak abiarazteko gonbita. Halere, “oso eskertuak” daude eta soka-dantzan parte hartzeko proposamenarekin bezala, pozarren. “Ohore eta aitortza oso handia da, bai berrogei urteon ibilbideari eta urte haue-tan guztietan Ziortzatik igaro diren guztiei. Harrotasunez bizitzen ari gara”, gazte elkartekoen esanetan. Elkarrekin bazkaldu eta txupinazora batera joatekotan dira.

Ez da erraza lau hamarkadetako ibilbidea minutu gutxi batzuetan balkoi batean irudikatzea. Baina argi dutena da, “gu ez ginatekeela hor egongo, aurretik egondako guztiei esker izan ez balitz”.

Une honek, gainera, oso lanpetuta harrapatu du Ziortza, soka-dantza-ko entseguekin eta kanpaldiko antolaketarekin. Ekimen honetarako gogotsu dira jada, “uda ederra izango da aurtengoa ere”. Ha-



Ziortza aisialdi taldeak 40 urteko ibilbidea osatu du aurtan.

ZIORTZA

***“Gu ez ginateke
hor egongo, aurretik
egondako guztiei
esker izan ez balitz”***

lere, pozarren dira, “40 urte eta gero jende asko elkartzen delako” auzolana ardatz duen ekimen honen bueltan. Laguntzailerik gabe ez baita kanpaldirik. Ziortzako begiraleak proiektu honen muina dira, eta kanpaldira begira bidelagunak behar izaten dituzte. Ekainaren 28an joango dira azpiegiturak muntatzera, abuztuaren 9an egokituko da bilketa lana. “Herritar oro” dago gonbidatua laguntzera.

“Oso goian amaituko dugu”

40. urtemuga jaialdia ospatu berri-ritan joango dira kanpaldira. Pozik ekimenak izan zuen harrerarekin eta plazaraturikoarekin. “Oso goian amaituko dugu” ikasturtea; udale-

ZUMARTE

***“Zumarte Musika
Eskola herritarrena da,
herria da. Hala izan da
40 urteotan”***

txeko balkoian “urtemuga borobil-tzeko ezin modu egokiagoan”. Izan ere, kasualitatea da baina urtemu- ga hau iragartzeko urte zahar gaue-ko mahats aleen jateari lotutako parodia modukoa egin zuten balkoi horretan Ziortzakoek urtarrila ha- sieran. Hantxe borobilduko dute ur- teurrena hilaren 1an, Zumartekoe- kin batera.

“Herriak ematen duen saria”

Ziortzaren antzera, harriduraz eta pozarren jaso dute Zumarten ere txupinazoan parte hartzeko gonbita. “Oso eskertuak gaude”, Zumartetik nabarmendu dutenez eta horrekin batera, “harro, oso harro” eragile desberdinen lana ikusgarri egingo

dutelako eta batez ere, hautaketa moduagatik, "herriak ematen duen saria" baita. Eta Zumarte hor dago kokatua. "Zumarte herritarrena da, herria da". Hala izan da 40 urteotan.

Hamarkadotako bizitza berriki berrabiltu zuen ibilbide musikatu berezi batekin. Sorreratik gaur arte, "saia-tu gara garai berrietara egokitzen, modernitatea eta tradizioa uztartzen. Herriak hau badio, hain gaizki ere ez genuen egingo".

Ziortzakoen antzera, emozio handiko eta lan itzela eginiko ikasturtea amaitzeaz zirela jaso dute festetarako gonbita bikoitza. "Ez gara jarri pentsatzen" txupinazoan zer adierazi. Baina argi dutena da, "eskertzea tokatzen zaigula, herrigintza goraiatzeko". Izan ere, uztailaren lehenean udaletxeko balkoian batuko



Zumarte Musika Eskolak ikasturte osora luzatu ditu urteurren ospakizunak.

dira bi herri eragileok baina "Zumarte eta Ziortza bezala, eskertza herriko talde guztiengana zabaltzea" gustatuko litzaieke. Izan ere, haien guztien arteko elkarlanak "egiten

baitu Usurbil herri bizia izatea". Eta horretarako baliatu nahi lukete Ziortzarekin partekatuko duten hurrengo asteko une berezia; herrigintzaren balioa goraiatzeko.

SANTIXABELAK

uztailak 2-6

SANTIXABELEKO MENUA

Urdaiazpiko iberikoa
Artzabal entsalada
Otarrainxkak plantxan

AUKERAN:
Haragiak edo Arrainak

Gazta Tarta
Edaria aparte

32€

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

PUNTAPAX 8, USURBIL 943 36 91 39 ARTZABALJATETXEA.EUS

ORDU LASAIK ETA PREZIO BEREZIAK FERIAGUNEAN

Jaietarako prestatzen lehenak dira eta ixten azkenak. Anbulatorio ondoko aparkalekuan kokatzen den feriaguneari buruz ari gara. Argitalpen hau eskuratzerako etortzen hasiak izango dira edo iristear. Jaigune honi lotutako zenbait nobedade izango dira aurtengoan.

Herri eta jai zaintzaileagoak izateko bidean, ordu lasaiak ezarriko dituzte bi egunotan; uztailaren 3an 19:00-20:30 artean eta bi egun geroago, hilaren 5ean, 12:00-14:00 artean. Ordu horiek guztiak musika eta argi bizirik gabekoak izango dira.

Horrez gain, prezioei dagokienean

ere bada aldaketarik. Izan ere, zertxobait garestituko dira gune horretako eskaintzaz gozatu ahal izateko ordaindu beharreko prezioak, baina era berean, haiekin hitzarmen bat adostu du herri honek hurrengo hiru urteotan prezio haiek mantendu daitezzen.

Diru kontuei buruz ari garela, azkenik, ohitura den legez, prezio bereziak izango dituzte bi egunetan; batetik, uztailaren 3an ospatuko den Umeen Egunean, bestetik, festen osteko astelehenean, hilaren 7an. Izan ere, Santixabelak amaitu osteko biharamunean izaten dute ferianteeek azken laneguna Usurbilen.



Uztailaren 3an eta 5ean, musika eta argi bizirik gabeko tarte batzuk izango dira.



Ondo para Santixabeletan

AIZPURUA OKINDEGIA




**OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK**

Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

Ondo pasa
festetan!



APARICIO

DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59
628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B
20170 USURBIL

**ATXEGA
JAUREGIA**
JATETXEA

EGUNEKO MENUA
EGUNEKO PLATERA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
PINTXOAK

**ONDO PASA
FESTETAN!**

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

Elexpe
ilargipaindegia

- BETILEEN TINTAKETA
- BETILEEN PERMANENTEA
- ESTETIKA
- TATUAIK
- ZUTIKAKO ETA
ETZANDAKO SOLARIUM-A



MUNA LURRA 12. USURBIL - 943 370 462

JARDUERA FISIKOA EGITEKO AUKERA

Parranda giroan murgilduko gara datorren astean Usurbilgo jaien eskutik. Nahi adina jan-edan edota dantzarako aukera izango da astebetez udalerrri honetan. Abagune ezin egokiagoa izango da, gainera, zergatik ez, urtean zehar, eguneroko bizimoduan egin bezalaxe, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko ere.

Festetan ere bizi ohitura osasuntsuak bultzatzea daitezkeenaren adibidea da aurtengo egitarauan aurkituko duzuen berrikuntzetako bat; uztailaren lehenerako antolatu duten boleibol ikastaroa. Festak ofizialki abiarazi aurretik, arratsalde-

ko 16:00etarako programatu dute gaztetxoentzat Oiardo kiroldegiko pistan. Asmoa, Usurbilen erroztzen hasia den jarduera berri hau ezagutarazi eta modu librean jolas-terako aukera eskaintzea da.

Gogoan izan, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailan Usurbilek talde bana du boleibolean gaur egun, denboraldi bikaina osatu dutenak. Infantilek eta alebinek Gipuzkoako txapeldunorde amaitu dute 2024-25 denboraldia. Pistan lehiatu ostean, kirol urtea hondartzako bolei txapelketarekin amaitu dute. Orain, gaztetxoek bolean ekin ahalko diete aurtengo jaii.



Uztailaren lehenerako boleibol ikastaroa antolatu dute.



DISEINU GRAFIKOA



**INPRENTA
OFFSET ETA DIGITALA**



DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**GORA
SANTIXABELAK**

ZENDO/AENEA

taberna

*Ondo pasa
Santixabeletan!*



NAGUSIA 35, USURBIL



ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

*Ondo pasa
Santixabeletan!*

ARANKA

BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL info@arankaberrikuntzak.com

“ASKE IZATEA ETA BESTEEI ASKE IZATEN UZTEA BILATZEN DUGU”

Berdinki konpainiaren ‘Mikra’ izeneko kale antzerkiaz gozatzeko aukera izango dugu jaietan, uztailaren 6an eguerdiko 12:00etan. Adin guztietara bideratuta dago, eta zirkua eta antzerkia uztartzen dituzte “generoa, rolak, botere harremanak” lantzeko. Irati Gonzalez eta Koldo Arakistan dira antzerkian parte-hartzen dutenak.

Nola hasi zen Zirkuola proiektua?

Irati Gonzalez: 2020. urtean hasi ginen Zirkuola elkarte zabaltzeko tramiteekin, eta beharragatik sortu zen. Lehenago emanaldiak ematen genituen, eta emanaldi bukaeretan ikusleak gerturatzen zitzaizkigun zirkua non ikas zezaketen galdetzerara. Erantzunik eman gabe gelditzen ginen orduan, ez baitzegoen zirkua ikasteko lekurik. Gu sortzaileak ere bagara eta entrenatzeko lekua behar genuen. Horrek, bultzada eman zigun proiektu hau abiatzeko. 2020ko azaroan hasi genuen Zirkuola proiektua, eta erantzun oso ona izan zuen lehen momentutik.

Koldo Arakistain: Pandemian erabiltzen genuen beste lokala utzi behar izan genuen, eta ezin genuen bertara joan entrenatzera. Itxialdian ginela bilera telematikoak hasi ziren eta proiektuaren nondik norako guztiak adosten hasi ginen. Gainera, linbo batean ginelako hasi ginen. Izan ere, momentu horretan ezin zen kirolrik egin, eta zirkua jarduera fisikoa den arren, ez zegoen kirolaren barruan. Beraz, entrenatu genezakeen.

Nola sortu zen ‘Mikra’?

K.A.: ‘Mikra’ dirulaguntza deialdi ba-



Akrobaziak pisu handia du ‘Mikra’ izeneko ikuskizunean.

IRATI GONZALEZ

**“Zirkuaren
barruan, antzerkiak
eta dantzak indar
handia daukate”**

tera aurkeztu eta gero sortu zen. Guk zirkua jarriko genuen, baina kontatu nahi genuen guztia ondo adierazteko bi zuzendarirekin lan egin genuen, eta gainera, genero ikuspuntutik kontatzen genuenez, genero aditu batekin ere lan egin genuen, oinarri soilak izateko eszenatoki gainean.

I.G.: Eta horrexegatik, Eider Gorburu genero aditua aukeratu genuen bide horretan laguntzeko, eta Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias zuzendaritza lanak egiteko. Musikari dagokionez, Ane Arruti izan zen sortzailea.

Nola egin daiteke zirkua eta antzerkiaren arteko lotura?

K.A.: Gu zirkuko beste proiektu batean elkartu ginen, eta kabaret moduko ikuskizuna zen, baina guk ez genuen ia ezer kontatzen. Proiektu horren barruan geundelarik, bueltaka genbiltzan zerbait kontatzeko ideiarekin. Ideia jario horretan, bagenekin generoaren gaia oholtzan jarri nahi genuela, egiten ditugun binakako akrobaziei nolabait esanahi bat eman nahi genien, eta gurea izango zen zerbait sortu.

I.G.: Zuzendariek antzerkiaren ideia lantzen lagundu ziguten, baina gure lekutik. Nik nire burua akrobatatzat dut, baina gero konturatu ginen zirkuaren mundua ez dela ezer itxia edo zurruna. Zirkuaren barruan antzerkiak eta dantzak indar handia daukate eta denak bat dira. Akrobazietan aurpegiarekin eta gorputzarekin asko esaten da eta hori guztia

zaindu nahi genuen. Eta nola mezu potente bat eman nahi genuen, antzerkia baliatu nahi genuen horretarako.

Nola azalduko zenukete 'Mikra' ikuskizunaren gaia?

K.A: Ez da gai bat, gai asko dira. Beti esaten dugu generoa, rolak, bostere harremanak eta abar. Azkenean gai horiek guztiak azaltzen dira, baina eszenan bi pertsonaia daude. Hasierako eszenan haietaz espero den hori erakusten dutenak, eta emanaldia aurrera joan ahala kapa kentzen joaten dira, eta momentu batean bi pertsonaia horien benetako esentzia azaltzen da. Eta hasieran erakusten den horretatik oso desberdina da.

I.G: Oso estereotipatutako pertsonaiak dira. Hasieran guri begiratu ta jende askori pasako zaio burutik zein diren gure ezaugarriak, baina egia da gero hori desitxuratzen doala benetan erakusteko gu garena. Jendeari hori bizitzan gertatzen dela azaldu nahi diogu. Joera handia dugula norbait begiratzeko eta epaitzeko edo etiketak jartzeko ezagutu gabe, eta gero konturatzen gara pertsona hori beste pertsona bat dela. Orduan hori da bilatzen duguna: ez epaitzea, aske izatea sentitzen duzun horretan eta zaren horretan, eta besteei aske izaten uztea.

Adin guztietarako aberatsa da, berez gazte eta helduentzat bidera-



Irati Gonzalez eta Koldo Arakistan, 'Mikra' saioan parte hartuko duten bi protagonistak.

KOLDO ARAKISTAIN

"5 urteko haurrekin hasten gara eta ikasle helduenak 69 urte egingo ditu abenduan"

tua dago, baina konturatu gara ume askok ikusi dutela Mikra, eta umeek ere mezua jasotzen dutela. Iruditegia abordatzen saiatzen gara eta umeek ere mezua jasotzen dute.

Kaleko antzerkiaz gain, klaseak ere ematen dituzue ez?

I.G: Arratsaldero ematen ditugu klaseak astelehenetik ostegunera. Umeekin, denetik uki dezaten saiatzen gara. Oinarria lurreko akrobaziak direla uste dugu, eta horri ematen diogu garrantzia. Gero txokoka egiten dugu lan aireko akrobaziak, oreka eta malabarrak eskaintzen dizkiegu. Helduekin, haiek diziplina bat aukeratzea bideratuta dago, eta horretan sakontzen dute.

Hilabeteen behin "Zirkua familia" eskaintzen dugu eta familiako kide guztiek parte-hartzen dute.

K.A: Bost urteko haurrekin hasten gara lanean, eta ikasle helduenak abenduan 69 urte beteko ditu.

"ZIRKUAREN OLATUAN SURFEATZEN ARI GARELA ESAN DAITEKE"

Azken urteetan zirkua gorakada nabaritu duzue?

K.A: Nik 'Zirkorrika' beti hasiera puntutzat hartzen dut. Fenomeno bat izan zen, eta abesti horrekin ia jende guztiak zirkuko diziplina guztiak zekizkien. Eta gero Gure Zirkua ere horretan lagundu du.

Azken finean, hemengo proiektu bat, gure hizkuntzan eta betidanik ezagutzen dituzun aurpegiekin, jendea zirkura gerturatzen lagundu du. Orain, esan daiteke, zirkua olatuan surfeatzen ari garela.

I.G: Euskal Herrian geroztik eta espazio eta eskola gehiago daude.

Horrek ere, erakusten du jendea geroztik eta gehiago gerturatzen dela zirkura probatzera eta egitera. Jende askok burutik kendu du zirkua irudi zahar hori, eta maila altuagoan kokatzen da, eta agian, modan dagoen zerbait da.

MARIATXIEKIN DANTZAN

Beste kultura batzuetako dantzen plaza bilakatu da azken urteotako jaietan Artzabalgoa. Eskaintza berritu dute aurtengo ediziorako, baita formatua ere. Mexikarrekin kalejiran ibiltzeko aukera izango da festen azkeneko arratsaldean, uztailaren 6an hain zuzen. 'México Lindo' mariatxiak gonbidatu dituzte herriko festetara.

Hamabi kideez osatutako taldea da 'México Lindo' musika taldea; "zortzi musikari eta abeslari; biolinak, tronpetak, gitarroia, bihuela, akordeoia eta *El Color de México* ballet folklorikoa osatzen duten dantza-bikote bat".

Sortzez Mexiko erdialdekoak dira denak. "Musikari onak dira, oso ahots onekin, taldeko kide guztiek, beren ahotsarekin, abestiaren estilo bakoitza abesten dute, korrikaldiak, guapangoak, rantxerak, baladak, gure herrian beti gustuko dituzten eta jendeak entzun nahi dituen abestiak, haiek beren musika eta dantzekin".

Aipatu moduan, bi zati izango ditu taldeak eskainiko duen saioak; hasteko, kalejira programatu dute eta gero, emanaldia. Guztia, jaien azken egunean, uztailaren 6an, arratsaldeko 18:30etan hasita Artzabalen.



'México Lindo' mariatxi taldea uztailaren 6an arituko da Artzabalen.

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

IT-ak egiten
dira

*Ondo pasa
Santxaleletan!*

edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*ondo pasa
Santixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



*Santixabel zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

*Ondo pasa
Santixabeletan!*



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia

Produktu homeopatikoa Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

“AKORDIO HONEKIN ERRALDOIEN

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa eta Usurbilgo Udalak. Bi aldeek pozarren eman zuten elkarlanerako jauzi berri hau, hitzorduko protagonistak, erraldoiak alboan zituztela.


Inoiz baino hurbilago ikusi eta ukitzeko moduan izan ginen Lauburu Usurbilgo Erraldoien eta Buruhandien Konpartsako urte luzeetako harremana duen erraldoi bikote ezaguna. Haiek dira lerrootako protagonistak eta haien presentzialtasuna bermatzen, sustatzen segiko duten konpartsa eta Udala bera. Izan ere, bi aldeek, Udalak eta Lauburuk lankidetza hitzarmena sinatu zuten ekainaren 12an, udaletxeko udalbatza aretoan.

“Usurbilgo erraldoi eta buruhandientzat egun garrantzitsua da gaurkoa”, nabarmendu zuten aipatu konpartsako ordezkariak. Izan ere, “urteetako lanaren ondoren, herrian hainbeste maite dugun tradizio honek, beste maila baterako jauzia emango du”. Udalarekin segidan izenpeturiko hitzarmenaz ari ziren.

Horri “esker, balioan jartzen dira herriko erraldoi eta buruhandiak baita konpartsak herrian egindako lana ere”. Horregatik, uste dutenez, “halako akordio batekin herriko erraldoien etorkizuna ziurtatua dago”.

“Erraldoien eta buruhandien kultura zabaltzen”

Gogorarazi zutenez, 2013an hasi zuten konpartsa gisa, orain arte eginiko ibilbidea. Urte hartan, “NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik inauterietako konpartsa hartatik sortu zen gaur egun, Lauburu bezala ezagutzen dugun taldea”.



Ekainaren 12an sinatu zen Udala eta Lauburu konpartsaren arteko akordioa.

LAUBURU KONPARTSA

*Hitzarmenari esker,
“tradizio honek beste
maila baterako jauzia
emango du”*

Egun, orduko kideek jarraitzen dute oraindik eta pozarren agertu ziren ekainaren 12ko ekitaldian. Ordutik, “une onak eta ez hain onak pasa ditugu eta taldea urte batzuetan uztera ere iritsi gara. Halere, beti izan da gure nahia, herritarrei gure ondarea ezagutaraztea, ahalik eta modu duinenean plazaratuz”. 2023an ofizialki erregistratu ziren irabazi asmorik gabeko elkarte gisa. 15 kideek osatzen dute egun.

Eta bide honetan jarraitu nahi dute aurrerantzean ere, “Udalarekin eta herriko eragileekin elkarlanean, erraldoien eta buruhandien kultura zabaltzen”. Konpartsa haziko da gutxi barru; egun bi erraldoi eta sei buruhandi dituzte. Beste sei izango dituzte hemendik aurrera. Haien guztien erabilera aipatu konpartsaren esku geratuko da, “udal

konpartsaren irudia sendotuz”. Izan ere, gogorarazi zutenez, “hitzarmenarekin batera, buruhandi berrien proiektua ibili gara mamitzen azken hilabeteetan”.

“Zuek zarete guk lanean jarraitzearen arrazoia”

Orain arteko ibilbidean, nahiz aurrerantzean eman asmo dituzten urrats berrietan bidelagun izandakoak eskertu zituen Lauburuk duela bi asteko ekitaldian; Udala eta udaleko Kultura Saila “proiektu honen aldeko apustua egiteagatik, baita aurretik gure ibilbidean izan ditugun zinegotzi eta teknikariak, konpartsako arduradun izan diren Lontxo Zubiria eta Angel Trull, hastapenetan hainbeste lan hartzeagatik, gurekin batera ibili diren dultzaineroak, Zumarte Musika Eskola eta, batez ere, Usurbilgo txistulariak, gaur arte konpartsatik igaro diren gazteak baita gu heldu aurretik auzolanean erraldoi eta buruhandien azpian sartu diren herritarrek eta, azkenik, mila esker ateratzen garen bakoitzean guregana gerturatzen zareten guztioi, zuek baitzarete guk lanean jarraitzearen arrazoia. Usurbilgo erraldoi

ETORKIZUNA ZIURTATUA DAGO"

eta buruhandien izenean, milesker guztioi".

Herri ondarea

Usurbilgo Udalak garrantzitsutzat jo zuen Lauruburen jarduna, "erraldoiak eta buruhandiak sustatzeko gogoa eta ardura hartuko duen talde egituratu bat egotea". Ildo horretan, "zortea daukagu Lauburu bezalako elkarte bat daukagulako herrian errotua, beren emanaldiekin herria girotzeaz gain, ondare horren zaintza ere egiten dutelako".

Herri ondarearen baitan kokatu zituen Udalak herriko erraldoi eta buruhandiak. "Jai giroa bultzatzen dute, haur zein helduen partaidetza sustatzen eta bistakoa da ateratzen diren bakoitzean sortzen den ikusmina".

Hitzarmenean jasotakoak

Ekainaren 12an Udalak eta Lauburuk izenpeturiko hitzarmenak urte amaierara arteko iraupena izango du, baina gerora, "urtez urte dekretu bidez luzatzeko aukera izango da".

Lauburuk eta Udalak izenpeturiko lankidetzak hitzarmenaren arabera, "Lauburuk Usurbilen erraldoi eta buruhandien konpartsa bat egotea sustatuko du eta urte osoan hainbat irtenaldi egingo ditu; lau Santixabeletan eta bana herri-auzoetako festetan".

Konpartsa hazi egingo da, sei buruhandi izatetik hamabi izatera igaroko da Lauburu. Horregatik, "bi multzotan sailkatuko dira, Lauburu konpartsak erabiliko dituenak" batek eta, bestetik, "herriko jaietan, jai batzordeetako edo bestelako eragileek erabiliko dituztenak".

Lauburuk erabiliko dituen konpartsa bera arduratuko da horien "mantentze eta garbiketa eta



Lauburu konpartsa handitu egingo da. Sei buruhandi izatetik hamabi izatera igaroko da.

AKORDIOAN JASOA

**Laburu arduratuko da
mantenuaz. Garbiketa eta
konponketa lanak ere
bere gain hartuko ditu**

konponketa lanez. Bestelako eragileek erabiliko dituzten buruhandien mantenu lanak ez ditu konpartsak bere gain hartu beharko baina Udalarik jakinaraziko dio zer nolako mantenua beharko duten, kalteren bat izaten badute, arropa garbitu edo berritu behar bada... Emanaldi edo irteera bakoitza Udalarik jakinaraziko zaio eta Udalak baimena eman beharko du".

Formazioa eta parte hartzearen sustapena

Horrez gain, "herriko haur eta gazteei behar den prestakuntza eskainiko die, urtean behin gutxienez, entsegu irekiak eta formakuntza ikastaroak antolatuz. Irekiak izango dira eta herriko gazteek konpartsan parte hartzea sustatuko dute.

Parte hartzeko beharrezko adina

zehaztua dute. "Konpartsak erraldoiak eta buruhandiak eramango dituztenek gutxienez 18 urte izan beharko dituzte" eta konpartsan "16-18 urte artekoek parte hartu ahal izateko guraso edo tutoreen baimena beharko dute".

Udalak Laubururi eskainiko dion laguntza ere zehaztu zuen. 2025ean 11.200 euroko diru ekarpena egingo dio konpartsari. "Bertan sartuta daude, besteak beste, eramaileen dietak, musikariak, auzoetako ekitaldiak, konponketa eta garbiketa eta aseguru gastuak".

Momentuz, Barrenkale 2an kokaturiko lokala ere prekarioz doan lagako dio Udalak, biltegi moduan, "erraldoiak eta buruhandiak gordetzeko eta konponketak, prestaketa eta entseguak egiteko". Trukean, "Lauburuk erantzukizun zibila esaltzeko aseguru poliza bat kontratatu beharko du eta lokalaren garbitasuna ere bere ardura izango da". Aldiz, "lokalari lotutako hornikuntza gastuak Udalak bere gain hartuko ditu". Horrekin batera, "Laubururen eta herriko beste elkarten arteko bitartekaritza erraztuko du Udalak eta auzoetarako garraioa ere Udalaren kontu izango da".

“ERASO MATXISTA BATEN LEKUKO BAZARA, ENTZUN, EZ EPAITU, BABESTU”

Usurbilgo Udalak eta hainbat eragileek indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokoloa adostu dute. Jai eta aisialdi guneetan prebentzio zein sentsibilizazio arloak lantzeaz gain, erasoak gertatzen direnerako jarraibideak ere zehaztu dira. Era berean, protokoloa indarrean jartzeko orduan, hainbat baliabide prestatu dituzte.

Baliabide horietako bat, albiste honi atxikitako kartela duzue. “Era-so matxista baten lekuko bazara, entzun, ez epaitu, babestu”, aldarria daramana. “Udalak eta eragileok ez ezik, uste dugu herritarrek orohar oinarritzko jarraibide batzuk ezagutzea ere beharrezkoa dela eta hala adierazi dugu karteletan ere”, egitasmo honen sustatzaileek berri eman zuten.

Aisialdi eta jai giroko eremuei lotutako protokoloarena ez da berria. Udalak eta hainbat eragileek zegoena eguneratu eta berritu egin dute eta ekainaren 10ean aurkeztu zuten Kaleazko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxean.

Emagin elkarteak kudeatuko du zerbitzua

Kartelarena ez da baliabide bakarra izango. Aurten uztailaren 1etik 6ra ospatuko diren Usurbilgo jaiei begira, indarkeria matxistarik gabeko gune bat ipiniko da. Aurreko urteen ildotik, jaien egunik jendetsuenetan egongo da gunea martxan: ostira-lean eta larunbatean (hilaren 4an eta 5ean). Emagin elkarteak kudeatuko du zerbitzua eta funtzio bikoitza izango du; batetik, bai uztailaren 4an eta 5ean, informazio gunea ezarriko dute 21:00-00:00



“Eragileok konpromisoa hartzen dugu festak hasi aurretik taldekide guztiek protokoloa ezagutu dezaten, eta jakin dezaten halako erasoren bat gertatzen bada zer egin behar den”.

PROKOLOA

**“Uztailaren 4an eta 5ean,
21:00etatik 00:00etara,
indarkeria matxistarik
gabeko gune bat
ipiniko dute
Mikel Laboa plazan”**

artean Mikel Laboa plazan. Eta bes-tetik, arreta puntua egokituko dute Gaztelekuan, gauerditik goizaldeko 6:00ak arte.

Indarkeria matxistarik gabeko guneak protokolo horren berri-tsunak dira. “Jai edo aisialdi gunetik aparte eta aldi berean eskura dau-den lekuak, biktimak seguru senti daitezkeen guneak. Shock egoera gelditzen hasteko aukera emango dio biktimari, gertatu zaiona kon-

tatzeko modua emateko ezinbeste-koa izango da”, protokoloaren sus-tatzaileek azaldu zuten.

Leku seguruak eta formakuntza

Gune seguru hauek ez dira San-tixabeletan bakarrik ipiniko. Usur-bilgo herri eta auzoetako festa bakoitzean egokituko dituzte leku seguruak. Usurbilgo jaiei lotutako zehaztasunak eman berri dituzte, gainerako jaietakoak aurrerago he-larazten joango dira.

Horrez gain, formakuntza saio bat jasotzekoak dira protokoloa landu duten eragileak, jaietako an-tolatzaileak edota ostalariak. “Era-gileok konpromisoa hartzen dugu festak hasi aurretik taldekide guz-tiek protokoloa ezagutu dezaten, eta jakin dezaten halako erasoren bat gertatzen bada zer egin behar den”, jakinarazi dute.

noaua

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noa

www.noa.ua.eus

guria Ondo pasa festetan!

guria

taberna

PLATER KONBINATUAK,
HANBURGESAK, ENTZALADAK,
OGITARTEKOAK, RAZIOAK...

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

**ARGILAN
ELEKTRIZITATEA**

*Elektrizitate instalakuntzak
eta mantenimenduak*

- Instalakuntza elektrikoak ·Argigintza
- Energia aurrezteak ·Atezain automatikoak
- Kontadoreen zentralizazioa...

943361380 - 629272859

Bordaberri 5, Usurbil

**PELLO
ARRANDEGIA**

ASTEARTETIK LARUNBATERA

8:30 - 13:30

650 31 31 91 Puntapax 7, Usurbil

ONDO PASA SANTIXABELETAN!

PROTOKOLOA ELKARLANEAN EGUNERATU DUTE

Indarkeria matxista jasandako emakumeei eta LGTBIQA+ pertsonari behar duten arreta eta babesa ematea du helburu eraso matxisten aurreko jarduketako protokoloak. 2019an landua zutena eguneratu eta indartu dute elkarlanean Usurbilgo Udalak eta hainbat eragileek azken hilabeteotan.

Hitzorduak batu zituen Udalarekin batera, Usurbilgo mugimendu feminista, gazte mugimendua, herri nahiz auzoetako jai batzordeetako ordezkariak edota Sagardo Eguna-ren Lagunak taldeko antolakuntza. "Azken hilabeteotan, elkarlanean aritu gara jai eta aisialdi guneetan eraso matxisten aurrean jarduteko



Sortzen aholkularitza zerbitzuarekin batera egin dute protokoloaren eguneraketa.

protokoloa eguneratzen. Protokolo hau, beraz, Udalarena ez ezik prozesuan parte hartu duten guztienta da".

Osaketa lan horretan bildutako edukia "gauzatzea ere denon arduraz izango da" gogorarazi zuten. "Alegia, denon gain dago prebentzio eta sentsibilizazio lana egitea eta

kasuak gertatzen direnean erantzun egoki bat ematea".

Dokumentu hau irekia dela ohartarazi dute. "Indarkeria matxista ulertzeko eta horri aurre egiteko moduetan aldaketak egongo dira, hobetu beharrekoa ere bai eta, beraz, garrantzitsua izango da protokoloa ere aldaketa horietara egokitzea".



Goiieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Ondo pasa festetan!



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

Uraitz, s.l.

*Ondo pasa
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

**693 05 93 92
943 56 66 40**

uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

USURBILGO GARAI BATEKO IRUDIEN PROIEKZIO BIKOITZA

Garai bateko argazkiak ikus-tea gustuko dugu, ez ziren gaur bezain ugariak; are gu-txiago, mugimenduzkoak. Halakoak harribitxiak izan ohi dira, jaiotarako girotzen hasteko Sutegin proiektatuko dituztenak bezalakoeak.

Iaz izandako arrakastaren ondotik, berri eskainiko dute "1371-1971 Usurbil villa bezala hasi ze-netik 600 urte" ikus-entzunezkoa ekainaren 30ean, bitan, arratsaldeko 17:00etan eta 19:00etan. Uda-lerri honek hiribildu izaera eskuratu zuenetik 600 urte bete ziren 1971n.

600. urtemuga haren harira eginiko ospakizunei buruzko bideoa da eskai-niko dena, koloretan. 48 bat minutuko iraupena du. Iaz eskainitako ikus-en-tzunezko lan honi, beste proiektzio bat gaineratu dio jai batzordeak; bigarren hau, aurrekoa baino berrixeagoa. Izan ere, 1991ko Sagardo Egune-ko irudi bilduma bat ere eskuratu dute jaietako antolatzaileek eta hauek ere hilaren 30ean kultur-etxe-ko auditorioan ikusteko aukera izango da. Urte hartako sagardo festa, postue-tako giroa ageri da ikus-entzunezko lan horretan.



'1371-1971 600 urte' ikus-entzunezkoa eskainiko dute ekainaren 30ean.

Ondo pasa festetan!

Auto Guria s.l



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

☎ 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Aguirrezabal Estankoa

Ondo pasa Santixabeletan!

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

Rafa

iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfiantzazko gremioak
- Komuneko altzariak

670 98 68 48

Borda berri kalea 1, behea USURBIL

Ondo pasa
festetan!




G15 AGREGACIÓN
DE INMOBILIARIAS
DE GIPUZKOA

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ONENA AURREZ AURRE!

**SALEROSKETA
& ALOKAIRUAK**



688 739 733

g15usurbil.eus info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea, 15 Usurbil, Gipuzkoa

 **Iñaki**
Iturgintza

Ondo pasa
festetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMALEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

mur
errotuluak

Ondo pasa Santixabeletan!!

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

murerrotuluak@gmail.com

Ekainak 30, astelehena

- 16:30 Pala txapelketa: kirol egokituen erakustaldia.
- 17:00/19:00 Bideo zaharren emanaldiak Sutegin: "1371-1971. Usurbil villa bezala izaten hasi zenetik 600 urte" eta "Usurbilgo 1991ko Sagardo Eguna".

Uztailak 1, asteartea

- 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera txosnetatik.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- 16:00 Boleibol ikastaroa Kiroldegian.
- 18:30 Jaixkipe txaranga Oiardotik.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren goera, Ziortza eta Zumarteren eskutik.
- Ondoren, herri kalejira buruhandi eta erraldoiekin.
- 20:00 Gazte txupinazoa eta txosnen irekiera.
- Jarraian, herriko dantzariak frontoian.
- 22:00 Erromeria frontoian: Laket.
- Ondoren, Bertsio Gauda txosnetan.

Uztailak 2, asteazkena

- 09:00 Esnadeia, txistulariekin.
- 12:00 Sokadantza, Joxe Martin Sagar-dia plazan.
- Jarraian, lore eta salda banaketa.
- 12:00 Triku taldearekin kalejira.
- 17:00 Esku pilotako finalak.
- 18:00 Diskofesta Gaztelekuan.
- 18:30 Ondoezik elektrotxaranga kock-tail tropikalarekin, txosnetatik abiatuta.
- 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagar-dia plazan: Asier Azpiroz, Nerea Elustondo, Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze. Gai-emailea: Amaia Agirre.
- 20:30 Palestinaren aldeko herri argazkia txosnetan.
- 23:00 Kontzertuak txosnetan: Naxker, Ganibet, Dj Fifi eta Fefa.

Uztailak 3, osteguna

- 09:45 Haur eta gazteei harrera, J.M. Sagardia plazan.
- 10:00-13:00 Puzgarriak frontoian.



Bertsio Gauda uztailaren 1ean ospatuko da, gauerdirekin.

- 10:00-12:00 Erronka LH5-DBH2koentzat eta ginkana LH1-4koentzat.
- 10:30-11:30 Txutxu tren. Eguneko Zentroa eta Artzabalgo Heduak.
- 11:30-13:30/15:30-17:30 Txutxu tren, Bordatxo aurretik.
- 12:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen (norberak ekarrita).
- 15:30 Ur puzgarriak Artzabalen.
- 16:00 Mus txapelketa Askatasuna plazan (izen ematea 15:30-16:00).
- 18:00 Txokolate jatea eta Dantzaokoa Dema plazan.
- 18:30 Poteo elegantea txosnetatik.
- 20:30 Erromeria frontoian: Bide Batez.

Uztailak 4, ostirala

- 11:00 Kolore Festa frontoian.
- 11:00-13:00 Toka txapelketa eta Santxabel Igel Jokoa, Artzabalen.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Atxegan.
- 14:30 Gazte bazkaria txosnetan. Ondoren, bingo musikatua.
- 15:30 Puzgarriak frontoian eta Askatasuna plazan.
- 16:30 Frutarekin eskulan/merienda eta egur jolasak Artzabalen.
- 18:00 Hamarru Elektrotxaranga.
- 18:30 Bola txapelketa.
- 20:00 Tapia eta Leturia frontoian.
- 23:00 Kontzertuak txosnetan: Sustrai berriak, Mirua eta Zer Dj-a.

Uztailak 5, larunbata

- 12:30 Herriarren arteko herri kirol lehia.
- 14:00 Zikero jana Askatasuna plazan, Bentazaharreko mutiko alaiak-ek girotuta.
- 18:00 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.
- 18:00 Mugi panderoa erromeria txosnetan.
- 19:00 Buruhandiak, erraldoiak.
- 19:30 Laskotxaranga.
- 23:00 Kontzertuak frontoian: Viagara eta Janus Lester.
- Jarraian, txosnetan: La Txama eta Fantasia Dj.a.

Uztailak 6, igandea

- 07:00etan, Kita del Pare txaranga, txosnetatik abiatuta.
- Ondoren, gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia, trikitilariekin.
- 11:30 Joaldunak Egurtzegitik abiatuta.
- 12:00 Kale Zirkua. 'Mikra' ikuskizuna eskainiko dute Artzabalgo frontoian.
- 18:30 Paella lehiaketa txosnetan. (Izen-ematea, 18:00etan).
- 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 18:30 México Lindo kalejira eta maria-txiak Artzabalen.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka, Dema plazan.
- 00:30 karaokea txosnetan.

TXIRIBOGA

TABERNA

SANTIXABEL FESTETAN:

Astearte gaua - Asteazken eguerdia
Ostiraletik igande eguerdira

MENU BEREZIAK AUKERAN:

47€

49€

51€

Ondo pasa
Santixabeletan!

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

Otar-Goxo

Elkagaiak

EUSKADIKO 3. AUTORE HANBURGESA LEHIAKETAN 5. SAILKATUA



ONDO PASA SANTIXABELETAN!

Behi txuketa, txahal entrekota,
txuleta kostilla eta abar, eta ez ahaztu gure prestatuak:
OSATU ZURE MENUAK!



ESKAERAK: 943 36 55 81 📞 677 64 27 76
otargoxo@gmail.com



ITZIRA
ERAIKUNTZAK

943 530 337
607 119 313



Ondo pasa festetan!

- gremioen koordinaketa • berritze lanak
- sukaldeak • komunak • mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

MIKEL ARRAINDEGIA



MIKEL ARRANDEGIA



Ondo pasa
Santixabelak!

San Inazio, 1 • 📞 943 366 356

SANTIXABELAK

Ekainaren 30etik

Uztailaren 6ra

2025



ZATOZ KOADRODUN ZAPI URDINA

LEPOAN JANTZITA DUZULA!



Usurbilgo Udala

Antolatzailea:
Santixabeletako
Jai Batzordea.

